

EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

Ingartek mugikortasuneko eta garraioko aholkularitza eta ingeniari bat da, 15 urtetik gorako esperientzia duen diziplina anitzeko talde batek eratutakoa. Hiri, administrazio publiko eta herritarrentzako irtenbide guztietan “adimena mugimenduan” eskaintzen dugu, garraioaren, zirkulazioaren, mugikortasunaren eta hiri-irisgarritasunaren kudeaketa optimizatze aldera, eraginkorragoak eta iraunkorragoak izan daitezzen.

Bulegoak ditugu Bilbon eta Donostian, eta datuak informazio adimentsu bihurtzeko gaitasuna garatu dugu, mugikortasuna eta garraioa hobetzeko erabakiak hartzerakoan balioa ematen duena. Azterketa matematikoetan, garapen teknologikoan eta soziologian esperientzia bateratzen duen diziplina anitzeko ikuspegiak eta taldeak bereizten gaitu.

Ingarteken proiektuen garapena bereizten duen metodologia gure bezeroekin burututako talde-lankidetzako prozesu batetik hasten da. Prozesu horretan, konpondu beharreko arazoak entzuneta aztertzen dira. Guztiaren gainetik, Ingarteken irtenbideak planteatzen ditugu, gure ustezarazoa konpontzeko ondoen egokitzen dena proposatzeko osotasunarekin, egiten duguna betetzeko konpromisoarekin eta ematen ditugun irtenbideen gaineko erantzukizunarekin. Bizi garen gizartea hobetzeko grinak mugitzen gaitu, eta ondo egindako lana bilatzen dugu.

Ingarteken nahia da herritarrei haien joan-etorrietan mugikortasun handiagoa emango dien mundu bat lortzea. Gutako bakoitzak emandako ikuspegia aberasgarria da arrakasta bermatzeko eta proiektu bakoitzean emaitza onak lortzeko.

Gure egungo egoera kontuan izanda, hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatzeko beharra ikusi dugu, lekuan lekuko hizkuntzari tokia eginda eta horren erabilera sustatuz. Honela, euskara enpresaren eremu guztietan lan-hizkuntza (bai ahoz eta bai idatziz) bilakatzea lortu nahi dugu, bai eta eskaintzen ditugun zerbitzu guztietara zabaltzea ere. Ingartek euskara eta gaztelaniaren arteko desorekak gainditzeko konpromisoa hartu du. Hori dela eta, euskararen normalizazioa erakundeko kudeaketa sisteman txertatzeko erabakia hartu zen, eraginkortasunez hedatu eta jarraipena egiteko.

Hona hemen euskara eguneroko lanean integratzeko Ingarteken arrazoieta batzuk:

1. Kalitatezko zerbitzua emateko eta bezeroen hizkuntza-beharrak asetzeko nahia.
2. Gizarte erantzukizuna, hizkuntza aniztasunaren errespetuan gizartean egindako aurrerapenekin bat etorritik, eta gizabanakoen hizkuntza-eskubideak eta gure inguruan sustraitzeko nahia betez.
3. Zerbitzua soilik euskaraz jasotzeko gizartearen eskaera gero eta handiagoari aurre egitea.

Horiei guztiei erantzuna emateko, Ingarteken Hizkuntza politika eguneratzen ari gara eta, horretarako, euskara plana abian jarri dugu. Politikaren bidez, erakundearen hizkuntza irizpideak, protokoloak eta prozedurak bideratzeko konpromisoak hartu ditugu. Era berean, euskara planak barne hartzen dituen baliabideak eta prozedurak lantzen jarraituko dugu, euskaraz lan egiteko eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko tresnak edukitzeko beharrezkoak baitira.

Bilbo, 2024ko abuztuaren 27an



Sinadura: Zuzendaritza Batzordea



INGARTEK
Inteligencia en movimiento
Ingartek Consulting S.L.
Plaza Venezuela, 1 - 1º Dcha. Dcha., 48001 BILBAO (BIZKAIA)
CIF: B95552899